



**M**eatzal trenbideak eta errestabideak, burdingaia, Trianoko mendietan kokaturiko meategietatik, portuko zamalekuetara edo inguruko labe garaietara garraiatzeko sistemarik erabilienak izan ziren.

1855. urtetik aurrera, Trenbideen Lege Orokorra aldarrikatuz geroztik, meatzal ustiaguneen inguruan trenbide sare zabal bat hedatzen hasi zen. Oso alde menditsua zenez, hainbat luerauzketak, tunelak, zubiak, euspen hormak eta abar burutu behar izan ziren, horietarik askok, gaur egun, oraindik dirautenak.

Hauetariko trenbide gehienak meatzal konpainiek beraien zerbitzurako eraikiak izan ziren. Hauen artean, Galdames, Orconera, Franco-Belga edo Mendierrekako trenbideak aipa daitezke.

Baina, inolako zalantza barik, garrantziarekin Bizkaiko Foru Aldundiak 1856.ean eraikitakoa izan zen, bai garraiatutako tonen kopuruagatik bai sasoi bartan Aldundirako diru iturri oparoa izan zelako.

Trenbide hau, Trianoko trenbidea izenarekin ezagunagoa, lehenen inaguratu zenez, gainontzekoak eraiki zirenean, beraien trazaketak Trianokoarekin lehiatzen zirenez, honen tarifetara egokitu behar izan ziren, modu honetan, meatzari txikien interesak babestua suertatu zirelarik.

Hogeigarren hamarkadatik aurrera, meatzal ustiakuntzaren gainbehera hasi zen eta trenbidea defizitarioa izaten hasi zen, pertsonen trafikoa areagotuz joan zelarik.

Gerra zibilaren ostean, RENFEk hartu zuen trenbidea eta elektrifikatu egin zen, gaur eguneko Bilbo-Muskiz trenbidea bilakatu.

Ondoko ibilbide honetan, Mendierrekako trenbidearen antzineko trazaketari jarraituz "Peñas Negras"eko I.I.Z.tik Mendierrekaraino eramango gaituen ibilaldia egitea proposatuko dizugu.

Trenbide hau, "Luchana Mining Company"rena, eraikitzen 1877.ean amaitu zen eta 1928. urtean B.L.G.k erosi zuen, konpainia osoarekin batera. 40. hamarkadan, bai meatzal ustiaketa eta bai trenbidea ere, behin betirako desmuntatu ziren.

Ibilbidean zehar, lehenengo tartean batez ere, ustiaketaren zenbait hondakin ikus daitezke: errestabideak, dekantazio baltsak, kiskaltze labeak eta bestelako meatzal eraikuntzak.



Orconera konpainiaren lokomotorea



Oiolako urtegia

## IBILBIDEA

"Peñas Negras" I.I.Z.tik abiatuz, bere ezkerretatik irten eta Oiola haranaren ipar magaletik jarraitzen duen bidea hartuko dugu. 5 minutuko ibilaldi errazaren ondoren, bidea banatu egiten da **1**, ezkerretatik altuera berean, edo zuzen hartuz gero, haran hondorantza jarraitu daitekelarik. Guk bigarren aukera hau hartuko dugu.

Hamar minuturen buruan "Picui" meatzal ustiagunera helduko gara, burututako luerauzketari esker erraz ezagutu daitekeena. Antzineko ustiagune honen zehar jeitsi eta magal erditik doan bidetik jarraituko dugu. 20 bat minututan, La Arboledako hilerritik jeitsen den zementozko aldai zuri **2** batekin egingo dugu bat.

Aldai honetatik, 10 minututan Lugo-riagaraino (Las Gorrigas) jeitsiko gara; hemen etxe baten hormazaharren parean **3** aldaia utzi eta ezkerretatik zaborreri baten —antzineko meatzal ihardueraren



### Oiola urtegia diketik

lekuko— goiko alderaino igoten den bide txiki bat hartuko dugu.

Zaborreriaren zabalgunea zeharkatu eta Mendierrekako trenbidearen antzineko trazaketaraino, ezkerraldeetik, zuhaixken artean jeisten den bidexka hartuko dugu. Inguru honetan, lehengo trenbideak, neguan urez beterik egoten diren kareharizko arroil txiki bi zeharkatzen ditu, hala ere, kanpotik inolako arazo barik ingura daitezke.

Bide honi jarraituz, 20 minututan Oiola edo Loiola urtegiaren dikera iritsiko gara, bertaraino, transformadore bat kokaturik dagoen postearen ondotik irten den bide bihurritik jeitsi daiteke.

Hemendik, Mendierrekaraino jeisten den asfaltozko errepidetik edo errepide berean amaitzen den trenbidearen trazaketa jarraitu daiteke. Guk bigarren bide hau aukeratu dugu.

Antzineko trenbideari jarraituz, 10 minuturen buruan Arnabalera iritsiko gara, bertan, antzineko burdingai zamatokien aztarnak beha daitezke. Hortik aurrera, “Luchana Mining” trenbidearen goiko eta beheko tarreak lotzen zituen errestabidetik (goibehe guztia trenbidez burutzeko ezinaren aurrean, trazaketan




### Mea zamatokia


errestabidea tartekatzea erabaki zen) jeitsiko gara, izan ere, oso ondo zainduta dago eta.


Errestabideak, 10 minututan, Oiola urtegiaren diketik jeisten den errepidearekin bat egingo du **5**, hemendik beste 25 minutuko jeitsieran Mendierrekaraino helduko gara, gure ibilbidearen amaiera. Herriraino jeisteko hainbat bidexka daude, baina guk erreka (edo lakua, hortxe batzen baitira biak) gaineko zubiaren pareraino jeisten dena aholkatzen dugu.



### Mendierreka

 Goibehea: Gutxi gora behera 431 metro. “Peñas Negras” I.I.Z.ko 460 metroko altueratik, Mendierrekako 29 metroraio. Ibilbide osoa beherakoa da.

 Orduetgia: Beherako bidean, ordu bat eta 50 minutu. Gorako bidea eginez gero zertxobait gehiago.

 Zailtasuna: Beherako bidean nahiko erraza; zenbait bidetan, zementozko aldai eta asfaltozko errepidetan zehar (azken tartean) burutzen delarik.

### EZAUGARRIAK

Industri arkeologia, paisaia, landaretza (erriberako basoa).